



OHAR TEKNIKOA: ALDAKETAK 2022KO APPLE-REN ROOT PROGRAM-EN

Izenpe

© Izenpe SA 2022

Dokumentu hau Izenpe SAren jabetzakoa da eta bertako edukia konfidentziala da. Dokumentu hau ezin da kopia, ez guztiz, ez partzialki, eta ezin zaie besteei erakutsi, eta ezin da entregaren helburua ez den beste helburu batzuetarako erabili Izenpe SAren aurretiazko idatzizko baimenik gabe. Kontratu baterako entregatzen baldin bada, kontratu horretan zehazki baimendutakora mugatuko da horren erabilera. Izenpe SA ezingo da dokumentuaren edizioan izan daitezkeen aldian behingo akatsen edo omisioen erantzule hartu.

■ Beato Tomás de Zumárraga
71 - 1ª Planta
01008
Vitoria - Gasteiz

www.izenpe.eus
izenpe@izenpe.eus



Sarrera

Applek gako publikoko azpiegitura erabiltzen du Appleren erabiltzaileen esperientzia babesteko eta hobetzeko. Appleren sistema eragileek eta aplikazioek (Safari eta Mail, adibidez) biltegi bateratua erabiltzen dute oinarritzko ziurtagirietarako; ziurtapeneko entitateen oinarritzko ziurtagiriak biltegi horretan egon daitezen, ziurtapeneko entitateek baldintza tekniko jakin batzuk bete behar dituzte. Baldintza horiek Appleren **Root Program** dokumentuan jasota daude: (https://www.apple.com/certificateauthority/ca_program.html)

2022ko otsailaren 1ean sartu zen indarrean dokumentuaren bertsio berria; bertan, beste aldaketa batzuen artean, zehazten da SMIME sinadurak egitea ahalbidetzen duten (sinadura elektronikoetako sinadurak) eta 2022ko apirilaren 1etik aurrera jaulkitako ziurtagiriekin ezin dutela 1185 egun baino gehiagoko indarraldia izan.

Eragina Izenpen

Izenpek jaulkitako eta SMIME sinaduraren erabilgarritasunak dituen ziurtagiriaren profil bakarrak ziurtagiri profesionalak dira.

PROFESIONALA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila		Sinadura mota eIDAS
Erakunde publikoko langileak	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.1	Handia		Kualifikatua
	IZENPEren softwarea-edukitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.2	Oinarritzkoa		Aurreratua
	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.3	Handia (txartel birtualar ekin)	Oinarri zkoa (Giltzar ekin)	Aurreratua
Korporatibo kualifikatua	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.1 1.3.6.1.4.1.14777.4.2	Handia		Kualifikatua
	IZENPEren softwarea-edukitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.2	Oinarritzkoa		Aurreratua
	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.3	Handia (txartel birtualar ekin)	Oinarri zkoa (Giltzar ekin)	Aurreratua

Appleren **Root Program**-en eskakizunak betetzeko, ziurtagiri horien indarraldia 4 urtetik 3 urtera murriztuko dugu, eta aldaketa hori martxoaren 31tik aurrera sartuko da indarrean.